*"Araba probintzia Noble eta Leial hau gobernatzeko Ordenantzak eta Koadernoko Legeak, Enrique Laugarrenak 1463. urtean emandakoak. Errege Katolikoek Ordenantza eta Lege horiek berretsi zituzten 1488. urtean, eta Carlos V.a Enperadore jaunak berretsi eta onestu zituen 1537. urtean. ".*

*Lurralde Historikoaren Artxiboa. Sign: DH–1401–16. Argazkia: Sormen Creativos.*



# Arabako Batzar Nagusien sorrera eta finkapena (1463–1537)

José Ramón Díaz de Durana

# ARABAKO BATZAR NAGUSIEN SORRERA ETA FINKAPENA (1463–1537)

José Ramón Díaz de Durana

## BATZAR NAGUSIEN SORRERA

Batzar Nagusien sorrera topiko zahar, interesatu eta dokumenturik gabekoarekin lotu izan dute beti; topiko horrek Arabako Kofradia eta Arabako Ermandade Nagusiaren arteko zubia jarri nahi zuen. Horrela bada, Batzar Nagusien antzina–antzinako jatorria adierazi nahi zuten, baita Arabako lurraldeetako "gobernamenduaren berezitasunaren" antzinatasuna ere, musulmanek 711. urtean egindako inbasioren ostera arte luzatuko zena. Baina, bata zein bestea erakunde ezberdinak dira, ez dute elkarrekin inolako loturarik; gainera Kofradia jaun–erakundea zen eta, arabar guztiak bildu beharrean, handikiak baino ez zituen biltzen. José Joaquín de Landázurik berak, XIX. mende bukaerako idazleak, zeinaren idazlanetan oinarritu baitziren politikoak eta historiagileak orain dela urte gutxi arte, bere "***Historia Civil de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Álava***"ren kapitulu batean honakoa onartzen du: «***incertidumbre del método de gobierno que tuvo Álava después que se unió voluntariamente con la Corona de Castilla***»[1].

Gaur egun ez dago historiagilerik "ziurgabetasun" hori argitu nahi duena, eta arrazoia honako hau da: "Arabako gobernu–metodorik" ez izatea. Inoiz ez da horrelakorik izan, handikiek 1332. urtea baino lehen Arabako herri eta gizonen gain zuten jurisdikzioaren egikaritza horrelako gobernu–metodotzat hartzen ez badugu behintzat; baina horrek ez du zerikusirik 1463. urtetik aurrera gertatuko zenarekin. Laburbilduz, ez dago loturarik Arriagako Kofradia eta Batzar Nagusien



*Enrique IV.a Erregeak sinatutako dokumentuaren sinaduraren eta dataren xehetasuna: Arabako Probintziako Ordenantzen berrespena, 1458ko apirilaren 22an emandakoak. Lurralde Historikoaren Artxiboa –DH–237–1. Foto Quintas.*

artean. Haien artean mende bat baino gehiagoko tartea dago, nahiz eta nabaria izan Batzar Nagusiek 1417. urtetik aurrera zenbait aurrekari izan dituztela, aurreko lanean aipatu zen bezala. 1417. urtean, baita erregearen ekimenari esker ere, Arabako lehen Ermandadea sortu zen. Baina 1463. urtetik aurrera eratu zirenek ez dute zerikusirik aurrekoekin, garrantzia, indarra eta eraginari dagokionez. Beraz, Batzar Nagusien historia 1463. urtean hasi zen. Urte horretako udaren amaieran eta udazkenaren lehen egunetan Rivabellosan Enrike IV.ak izendatutako legegizon batek –Pedro Alonso de Valdivielsok– eta ermandadetatik etorritako hamasei prokuradorek hirurogei Ordenantza idatzi zituzten. Ordenantza horiek baztertu egin zituzten 1458. urtean egindakoak, eta G. Martínez Diézek esan duenez, «*el cuerpo fundamental de las leyes de la Provincia de Álava durante 400 años*»[2] izan ziren.

Baina, Batzar Nagusien oinarrizko ezaugarriak zehaztu baino lehen, komeni da aztertzea zer testuingurutan sortzen diren; hau da, XIV. mende bukaeratik Araban izandako gizarte–gatazkak konpontzeko beharraren testuinguruan. Gatazka horiek nekazariak, hiribilduen jendea eta handikitxoak alde batetik, eta Arriagako kofradiakideko oinordeko zuzenak bestetik, aurrez aurre jarri zituzten; azken hauek XIV. mendearen bigarren erdian, Trastámara delakoei emandako laguntzari esker, berriz Arabako Lurraldeen jabetasuna eskuratu zuten. Egia esan, Arabako Ermandadearen jatorri eta hasierako garapenaz arduratu diren lehen lanek honako hau azpimarratzen dute: 1463an izandako Ermandadearen behin betiko sorrerak hasiera eman ziola lurraldea eta politika integratzearen aldeko mugimenduari, eta mugimendu horrek gaur egungo Araba osatzen duten lurraldeak mugatu eta artikulatu zituela. Gainera behin eta berriz aipatu dute Enrike IV.ak argitaratutako Ordenantzen azken xedea honako hau zela: Ermandadean sartutako leku–zirkunskripzioei gobernuaren eta justizia–administrazio sendo eta eraginkorraren arauak finkatuko dituen ordenamendu juridikoa ematea. Baina, orokorrean aipatutako lanek ez dute aztertu erakunde horren sorreraren gizarte–testuingurua, eta testuinguru hori oso garrantzitsua da geroko gertaeren zergatiak ongi ulertzeko.

Denek adierazten dute, egoki gainera, gaizkileen aurkako defentsa izan zela sorrera horren azken arrazoia, baina batzuek bakarrik




ARABAKO LEKU-ERMANDADEAK

1. Valderejo (Zuia)
2. Valdegovía (Zuia)
3. Bergonda eta Fontecha (Gasteiz)
4. Bellojín (Gasteiz)
5. Gesaltza-Añana (Gasteiz)
6. Lacozmonte (Mendoza)
7. Kuartango (Zuia)
8. Urkabustaiz (Aiara)
9. Arrastaria (Aiara)
10. Aiara (Aiara)
11. Artziniega (Aiara)
12. Laudio (Aiara)
13. Zuia (Zuia)
14. Zigoitia (Mendoza)
15. Los Huetos (Mendoza)
16. Mártioda (Gasteiz)
17. Badayaoz (Mendoza)
18. Mendoza (Mendoza)
19. Iruña (Mendoza)
20. Ariñez (Mendoza)
21. Morillas (Gasteiz)
22. Ribera (Zuia)
23. Tuyo (Gasteiz)
24. Estavillo eta Armiñón (Gasteiz)
25. Berantevilla (Guardia)
26. Portilla (Gasteiz)
27. Salinillas Buradón (Guardia)
28. Tierras del Conde (Guardia)
29. Guardia (Guardia)
30. Labraza (Gasteiz)
31. Bernedo (Gasteiz)
32. Marquínez (Guardia)
33. Kanpezu (Agurain)
34. Arana (Agurain)
35. Arraia-Laminoria (Agurain)
36. Okina (Gasteiz)
37. Asparrena (Mendoza)
38. Donemiliaga (Agurain)
39. Agurain (Agurain)
40. Barrundia (Mendoza)
41. Gebara (Gasteiz)
42. Iruraiz (Agurain)
43. Ixona (Gasteiz)
44. Andollu (Gasteiz)
45. Larrinzar (Gasteiz)
46. Ganboa (Mendoza)
47. Ubarrundia (Mendoza)
48. Legutiano (Guardia)
49. Aramaio (Guardia)
50. Arrazua (Mendoza)
51. Gasteiz (Gasteiz)
52. San Juan de Mendiola (Gasteiz)
53. Monasteriobarria (Gasteiz)
54. Orozko (Aiara)

JAURGOA ETA ERREALENGOA ARABAN 1450. URTE ALDERA

- AIARA
- MENDOZA
- MANRIQUE
- HURTADO DE MENDOZA
- SARMIENTO
- GAUNA
- ROJAS
- GEBARA
- AVENDAÑO
- MUXIKA
- SÁNCHEZ DE ARCE
- ERREALENGOA
- BESTE JAURGO BATZUK
- NAFARROAKO ERREINUA




ARABAKO LEKU-ERMANDADEAK

1. Valderejo (Zuia)
2. Valdegovía (Zuia)
3. Bergonda eta Fontecha (Gasteiz)
4. Bellojín (Gasteiz)
5. Gesaltza-Añana (Gasteiz)
6. Lacozmonte (Mendoza)
7. Kuartango (Zuia)
8. Urkabustaiz (Aiara)
9. Arrastaria (Aiara)
10. Aiara (Aiara)
11. Artziniega (Aiara)
12. Laudio (Aiara)
13. Zuia (Zuia)
14. Zigoitia (Mendoza)
15. Los Huetos (Mendoza)
16. Mártioda (Gasteiz)
17. Badayaoz (Mendoza)
18. Mendoza (Mendoza)
19. Iruña (Mendoza)
20. Ariñez (Mendoza)
21. Morillas (Gasteiz)
22. Ribera (Zuia)
23. Tuyo (Gasteiz)
24. Estavillo eta Armiñón (Gasteiz)
25. Berantevilla (Guardia)
26. Portilla (Gasteiz)
27. Salinillas Buradón (Guardia)
28. Tierras del Conde (Guardia)
29. Guardia (Guardia)
30. Labraza (Gasteiz)
31. Bernedo (Gasteiz)
32. Marquínez (Guardia)
33. Kanpezu (Agurain)
34. Arana (Agurain)
35. Arraia-Laminoria (Agurain)
36. Okina (Gasteiz)
37. Asparrena (Mendoza)
38. Donemiliaga (Agurain)
39. Agurain (Agurain)
40. Barrundia (Mendoza)
41. Gebara (Gasteiz)
42. Iruraiz (Agurain)
43. Ixona (Gasteiz)
44. Andollu (Gasteiz)
45. Larrinzar (Gasteiz)
46. Ganboa (Mendoza)
47. Ubarrundia (Mendoza)
48. Legutiano (Guardia)
49. Aramaio (Guardia)
50. Arrazua (Mendoza)
51. Gasteiz (Gasteiz)
52. San Juan de Mendiola (Gasteiz)
53. Monasteriobarria (Gasteiz)
54. Orozko (Aiara)

ARABAKO LURRALDE-ITXURAKETA 1417. URTEKO ERMANDADEA

1417AN ERATUTAKO LEKU-ERMANDADE. KANPOAN GELDITUTAKO LEKU-ERMAND

NAFARROAKO ERREINUA

HIRIBILDUAK

azpimarratzen dute –euskal hiru lurraldeetan erakundeen eraketari buruzko aipamen orokorra egiterakoan–, ermandade bakoitzaren jatorria eta alderdi–borrokak oso lotura estua dutela; edo, beste era batera esanda, Arabako Ermandadeak eta lurralde honetako gizarte–gatazkek zerikusi handia dutela elkarren artean. Arabako kasua koordenatu hauetan kokatzen da, baina, nire ustez, horren lehen bilakaera, Gipuzkoa eta Bizkaikoarekin parekoa bazen ere, ezberdina izan zen, alde batetik, kostaldeko lurraldeen garapen ekonomikoaren egitura oso bestelakoa zelako. Izan ere, Kostaldean artisautza eta merkataritzari ekin zioten bitartean, Araban, aldiz, nekazaritza zen jarduera ekonomiko nagusia. Eta, beste alde batetik, Araban jaurerrien antolaketa handia zutelako (1. zk.ko mapa) eta, aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan ia ez zegoen horrelakorik. XV. Mendean horrek guztiak, hain zuzen ere, sendo markatu zuen gizarte–gatazken garapen arteko desberdintasuna, elkarren aurkako taldeen itunak baldintzatu baitzituen, baita gatazka horien irtenbidea ur–mugako alde batean eta bestean ere.

Horrela bada, Gipuzkoarrek eta Bizkaitarrek XIV. mendearen azken laurdenean beharrezko lege–tresnak sortu eta ia lurraldeko alderdi guztiak bateratzea lortu zuten bitartean, Arabako hiru hiribildu –Gasteiz, Agurain eta Trebiño (2. zk.ko mapa) – saiatu ziren lurraldearen gainontzeko alderdiak biltzen 1417. urtean. Ordura arte ez bazuten lortu –eta une horretan ere ez zuten lortu– bi arrazoirengatik izan zen. Lehendabizikoz, jaunen presio sendoek sortutako trabengatik, XIV. mendearen bigarren aldian Arabak jasan zuen jaurerrien berrantolaketaren ondorioz: Arabako lurraldeen %80 inguru jaunen eskuetara joan zen. Eta, bigarrenik, Arabako nekazal munduaren ahultasunagatik, eta ez bakarrik herrietan biztanle kopuru txikia bizi zelako, baita haien ekonomia potentziala eskasa zelako ere, eta horregatik oso eragin sozial eta politiko murriztua zutelako. Beraz, aipatutako baldintzek zehaztu egin zuten Arabako gizarte–gatazken garapena eta, noski, Ermandadearen eraketa bera ere. Ermandadea behin betiko eratu zen 1463. urtean, alde batetik, Gaztelako erregearen parte–hartze zuzenari esker, erregeak lurraldea baketu nahi zuelako, merkatal trafikoaren bidez errenta handiak jasotzen baitzituen. Eta, beste aldetik, batez ere indar korrelazioaren aldaketari esker. Honako bi faktore hauek bultzatu zuten indar–korrelazioa hori: lehenik, Arabako gizartearen sektore dinamikoak –merkatariak eta bereziki gasteiztarrak– jarduera ekonomikoaren garapenari ezarritako trabekin amaitu nahi zutelako; eta bigarrenik, talde horiek herritar eta nekazariekin egindako aliantza; herritar eta nekazari horien erantzuna gero eta nabarmenagoa eta gogorragoa baitzen jaunen bidegabekerien aurrean.

Nire ustez, Ermandadea, hitz batez, aliantza horren gauzapena da. Aliantza horren arrakastari esker, jaunen presioa bigundu zen, eta pixkanaka amaitu ahal izan zuten ordura arte jaunek bortizki eta arbitrarioki eskatzen zituzten errentekin eta laguntzekin. Jaunek, hala ere, jurisdikzioa bidegabeki izaten jarraitu zuten Trastámara–koek emandako lekuen eta leku–ermandadeen gainean, XV. mendean eratutako maiorazkoen barruan sartzeari esker. Baina Ermandadearen garaipena politika mailan eman zen batez ere. Izan ere, administrazio–antolaketaren eredua inposatzeaz gain –Arabako lurraldea politikoki berrantolatu zuena–, Arabako nobleziaren nagusiak ordezkaritzako eta erabakitzeko organoetatik baztertu egin zituen betiko. Ermandadea, beraz, gatazka sozial eta politiko larriko testuinguruan sortzen da, eta Ermandadearen behin betiko eraketa erabakigarria da bai gatazkaren konponketan, bai horren ondoriozko azken emaitzan. Baina hasieratik eta aipatutako lehen garapen horren artean, gaur Araban ezagutzen dugun lurralde–antolaketa gauzatzen da eta, ezaugarri nagusiei dagokionez, 1463ko Ordenantzetan diseinaturiko antolakuntza administratiboa eta politikoa zabaltzen da.

## LURRALDE–OSAKETA, ORGANIGRAMA ETA ESKUMENAK

Izan ere, 1463an, leku–ermandade guztiak ez zeuden Rivabellosan bildurik. 1463. eta 1507. urte bitarteko Arabako lurralde–antolakuntza irudikatu nahi duen 3. mapan ikus daitekeenez, Arabako hegoaldea


BIZKAIA
Artziniega
BURGOS
GIPUZKOA
Uduña (Bizkaia)
San Martín de Losa
Villaba de Losa
Monreal de Zuya
Legutiano
Gesaltza-Añana
GASTEIZ
Dulantzi
Agurain
Burgelu
Argantzon
Trebiño
Kontrasta
Done Bikendi Harana
Korres
Antoñana
Miranda de Ebro
Berantevilla
Salinillas de Buradón
Urizaharra
Bernedo
Santikurutze Kanpezu
Labastida
Pancorbo
Sajazarra
Laguardia
Labraza
NAFARRA
ERRIOXA
1463AN ERATUTAKO LEKU-ERMANDADEAK
1463/1481 URTE BITARTEAN SARTUTAKOAK
1482/1507 URTE BITARTEAN SARTUTAKOAK
1463/1500 URTE BITARTEAN EPE BATERAKO SARTUTAKOAK
KANPOAN GELDITUTAKO LURRALDEAK
HIRIBILDUAK

## Arabako Ermandadearen organigrama (1463-1537)




- *Zenbait lur, leku, herri, hibiribildu eta hiri osatzen dute ermandade bakoitza, 52 ermandade guztira.*
- *E:Toki Ermandade bakoitzak Ermandadeko Alkatea eta prokuradoreak aukeratzen ditu*
- *Prokuradoreak Batzar Nagusietan biltzen dira. Batzar Nagusia Ermandadearen gobernu–organoa da.*
- *Batzar Nagusiek Batzar Berezia hautatzen dute eta Diputatu Nagusia zuzentzen du Batzar Berezi hori.*
- *Erregeak Diputatu Nagusia izendatzen zuen 1499–1535 urte bitartean.*

–Santikurutze Kanpezutik Berantevillaraino–, iparraldeko Aramaio eta Laudio haranak eta Gesaltza Añana, Bergonda eta Fontecha ez ziren Ermandadearen partaide. Baina, 1502. urterako, gaur egungo probintziako perimetroa behin betiko itxuraturik zegoela esan daiteke, 1507tik 1785era izandako Orozkoren eranspen iragankorra alde batera uzten badugu. 1481. urtea baino lehen Miranda de Ebro, Pancorbo, Saja, Villalba de Losa eta San Martín de Losa hiribildu eta lekuak, gaur Burgos probintziari dagozkionak, banatu egin ziren. Baina, aldi berean, Arabako hegoaldeko ia herri guztiak Ermandadearen partaide bihurtu ziren, baita Argantzon ere, aldi baterako behintzat. Amaitzeko, 1481. eta 1502. urte bitartean gainerako ermandadeak batu egin ziren: Salinas Kondearen babespean zeudenak, Laguardiako, (1486), Aramaiokoa (1489), Bernedokoa (1490), Laudiokoa (1491) eta Labrazakoa (1501). Trebiño ez zen Ermandade honetan sartu, 1417ko ermandadearen partaide izan bazen ere.

Administrazio–antolakuntza, leku–ermandade berriak Ermandade Nagusian sartzearen eta konpetentzien gehikuntzaren ildo berean doa: beheragoko erakundeak —hots, hiribilduak, herriak eta lekuak— besarkatzen ditu administrazio–unitateak osatuz. Erakunde bakoitzean auzotarrek Ermandadearen Alkatea hautatzen zuten; Alkate horrek **ermandadearen kasuak** deiturikoetan eskumena zuen; hau da, kasu

kriminaletan eta auzi zibiletan herri–batzar edo komunitateren bat inplikaturik zegoenean. Gainerako auzi zibiletan edo kriminaletan hiribildu bakoitzaren alkateak jarraitzen zuen eskumena izaten, ordura arte bezala edo, hala bazegokion, jaunak zuen eskumena lurralde bakoitzean, horrela baitzen eskumenen mailaketa Araban. Ermandade bakoitzak, auzotarren artean, Ermandadearen Prokuradore bat edo bi hautatzen zuen –Arabako Ermandadearen Organigrama 1463–1537 bitartean– eta prokuradore horiek Batzar Nagusien bilkuretan beren ermandadeen ordezkariak ziren. Batzar Nagusiak Ermandadearen gobernu– eta ordezkaritza–organo nagusia ziren, eta urtean bi aldiz biltzen ziren: maiatzean eta azaroan. Bilkura horietan prokuradoreek, beren aldetik, bi Komisari –Ermandadearen Alkateen lana ikustatzen zutenak—, Kontulariak «*para ver las cuentas y gastos de la dicha Hermandad*»[3], bi Eskribau eta Legelari bat hautatzen zituzten.

Batzar Nagusien osagarri bezala, 1463ko Ordenantzek gobernu–organo murriztua sortu zuten, eta «*de todas las cosas de la dicha Hermandad*»[4] arduratzen da Batzar Nagusien bilkura baten eta bestearen artean. Batzar Nagusiaren Prokuradoreek hautaturiko bi komisariok eta lau Diputatuk osatzen zuten. Horien guztien bilkura Batzar Berezia izenarekin ezagutzen da, prokuradoreen Batzar Nagusiari kontrajarririk. 1476tik aurrera, Batzar honen buru Diputatu Nagusia izan zen; 1463ko Ordenantzetan jasotzen ez zen pertsona bakarreko magistratura da. Diputatu Nagusia, Arabako Ermandade Nagusia Errege Katolikoek 1476an eratutako Gaztela erresumaren Ermandade Sainduan sartzearen ondorioz sortzen da. Erregeek izendaturik, Ermandade Sainduaren Epaile Exekutatzaileek lurralde bakoitzean zeuzkaten ahalmenak eta eskumenak bere gain hartu zituen. 1498an Gaztelako Ermandadea desagertu zenean, Diputatu Nagusiak funtzio berak izaten jarraitu zuen, eta funtzio horietako batzuk Araban ez zegoen Korrejidorearenak ziren.

Batzar Nagusien bilkuretan nahiz Batzar Bereziarenetan, honako gai hauek baino ezin zituzten landu: «*tocantes a los casos de la dicha Hermandad y a la ejecución de la iustiza e sobre aquellas cosas que pueden y deben según los quadernos de la dicha Hermandad*»[5]. Baina G. Martínez Díezek adierazi zuen bezala, autonomia eta jurisdikzio–ahalmen hain handia zuen horrelako erakundeak bere eskumen–mugak gainditzeko eta, bere barruko dinamikari jarraituz, beste gobernu–funtzio batzuk bere gain hartzeko joera izatea oso naturala da, ezin baitira sortu hain autonomo eta boteretsu ziren Ermandadearen eta Prokuradoreen Batzarrak bezalako erakundeak, erakunde horiei arazo arruntetan erantzukizun handiagoa izateko eskatuko dietelako. Horrela bada, laster gehituz joan ziren bi Batzar horien eskumenak –Arabako Batzar Nagusien Eskumenak 1463–1537 bitartean–. Pixkanaka–pixkanaka, 1463ko Ordenantzetan aipaturiko eskumen judizial eta administratiboez gain, legegintza gisako eskumenak izan zituzten, Arabako lurralde osoan bete beharreko Ordenantzen aldarrikapenean gauzatu zirenak. Aldi berean eskumen ekonomiko batzuk ere bere gain hartu zituzten, adibidez larrialdietan gari–hornikuntzari eta bideak konpontzeari eta egiteari dagozkionak, etab. Zenbait eskumen militar edo fiskal ere (nahiz eta garai horretan hastapena baino ez zen) lortu zuten. Noski, Koroak berak bazeukan




*Errege Katolikoen Errege–hornidura, zeinaren bidez Laudioko Ermandadea Arabako Probintziaren barruan gelditūko den. 1491ko urtarrilaren 15a. Arabako Lurralde Historikoaren Artxiboa. Sign: DH 171 – 6. Argazkia: Sormen Creativos.*

Arabako Batzar Nagusien eskumenak (1463-1537)




zerikusirik etengabeko gehitze honekin, aipaturiko autoreak adierazten duen bezala, ezen Ordenantzen bidez gehitzearen aukerari uko egiten bazion ere, egiaz, Erreinuan arrisku eta premiatasun uneak zirenean, Ermandadeari eskakizun zehatzak egiteko aukera ematen zion –batez ere dirua, gizonak eta hornidurak eskatzeko aukera. Eskaera horiek guztiek, ordenu publikoa eta zigor–errepresioarekin zerikusiri handirik ez bazuten ere, beste eskumen batzuk eskuratzea ekarri zuten berekin.

## BATZAR NAGUSIEN LEHEN URRATSAK: ESKUMEN ETA ZAMA BERRIAK, ARAZO ZAHARRAK

1463. eta 1537. urte bitartean, funtsean Batzar Nagusiek hurrengo mendeetan garatuko zituzten eskumenak bere gain hartu zituzten. Gainera, zenbait zamaz ere arduratu ziren. Garai horretan, halaber, etorkizuna arriskuan jartzeko moduko zenbait arazo konpondu egin ziren –nahiz eta arazo horiek zaharrak izan konpondu zituztenean. Lurralde– eta erakunde–finkapena gertatzen zen bitartean, urte horietan Arabako politikaren arazo nagusietako bat Probintzia eta Koroaren arteko harremana zen: elkarren arteko adostasuna eta laguntza dira nagusi, nahiz eta Monarkiak beren jarraibideak inposatu beti. Harreman bikain horren arrazoia honakoa zen: Koroak eta Ermandadearen buru zirenek eta Batzar Nagusiak kontrolatzen zituztenek interes komunak izatea. Testuinguru horretan Probintziak jatorrizko eskumenak gehitu zituen. Ez da batere erreza gehitze hori urratsez urrats berreraikitzea, askotan ez baitago zenbait datu egiaztatzeko agiririk, agiriak galdu egin direlako edo, besterik gabe, gai horri buruz bi alderdien artean isilpeko erabakia hartu zelako. **Horrela bada, egiaztatzen dugu agiri asko ditugunean –bereziki 1502. urtetik aurrera, data horretatik aurrerako Aktak gordetzen baitira–, Batzar Nagusiek zenbait eskumen eskuratu**

*"Los Álava" izenarekin ezaguna den Jauregia. Vitoria–Gasteizko Errementari kalean dago. Diego Martínez de Álava y Esquibelek eraiki zuen jauregia 1535. urtean gurasoen etxea zegoen lekuan. Argazkia: Quintas. Biltzar Nagusien Argazki–artxiboa.*



zituztela –1463ko Ordenantzetan agertzen ez zirenak–, lurraldeko gobernamenduaren eta administrazioaren eremuei dagozkienetan, betiere Koroak hartutako erabakiekin bat etorriz. Egia esateko, eskumen horietariko batzuk herri–batzarrek gauzatzen zituzten, baina hemendik aurrera Probintziak berak hartuko du bere gain aginpidea eta gauzapenaz arduratuko da. Horixe da Arabako Ermandadearen behin–betiko sorreraren ondorioz suertatutako aldaketa handietako bat. Izan ere, hemendik aurrera erregearen pribilegioak Gasteiz hiriak edo gainontzeko hiribilduek eskuratu beharrean, Arabako Probintziak eskuratuko ditu. Gainera, Probintziak berak aurkeztu egingo ditu bakoitzaren eskakizunak eta eskaerak, betiere Batzar Nagusien babesarekin.

Baina Batzar Nagusiek ez dituzte beste eskumen batzuk soilik eskuratzen. Sorreratik bertatik eta, bereziki, Gaztelako Ermandade Sainduaren partaide izaten hasi zirenetik, zama batzuei aurre egin zizkieten –zenbait diru, gizon eta hornikuntzaren bidez–, ordura arte ohiturazko zergak ziren eta zirkunskripzio bakoitzaren esku zeuden zamak alegia. Arabarrak, noski, ez zeuden salbuetsita zergak ordaintzetik eta, Erresumaren gainontzeko lurraldeekiko zenbait ezberdintasun bazen ere, kontzeptu berberengatik ordaintzen zuten eta, nola ez, baita Gaztelako Errege–Ogasunari irabazi handienak ematen zizkionak ere: zerbitzuak eta *alcabala* deritzon zerga. XV. mende bukaeran, hain zuzen ere, politikaren eta erakundeen egoera berria eta Errege Katolikoen ogasunaren politika berria dela–eta (diru–sarrera berezien normalizaziora jotzen zuen politika horrek), Araba eta Koroaren arteko harremanek beste bide bat hartu zuten.

1476tik aurrera erregeek, erresuman zein nazioarte mailan, hedatze–politika handinahiari ekin zioten, Espainiako Inperioaren hasiera izango zen. Horren parean, erregeen beharrak gero eta handiagoak ziren neurrian, Errege Katolikoek Probintziari gero eta diru, gizon

eta hornikuntza gehiago eskatzen zizkion. Suertatuko gastuak ordaintzeko –Granada eta Nafarroako konkisten, Frantziaren aurkako gerraren, eta abarren ondorioz gizon eta diru asko galdu zen–, Fernando eta Isabel errege–erreginak, Felipek, Juanak eta seme Carlos V.ak, gaztelauen diruaz gain, arabarrena ere behar zuten, eta dagozkien kopuruak eskatzen zieten. Eskaera eginda, Batzar Nagusiek errege–eskaria onartu behar zuten; eta eskatutako diru, gizon eta hornikuntzak ermandadeen artean banatu eta ordaindu egiten ziren. Hala ere, Batzar Nagusiek ez zuten zerga–bilketa egiteko ahalmenik, banaketa onartu baino ez zuten egiten, eta prokuradoreek biltzen zuten dirua leku–ermandade bakoitzean, ermandade bakoitzaren ordaintzaile kopuruaren arabera. Batzar Nagusien zeregina, beraz, Errege eta arabarren arteko zubia izatea zen, eta kontuan hartu behar da erregearen eskakizunak onesten zituztenek eta Koroak interes berberak zituztela. Dena dela, funtsezko aldaketak gertatu izan ziren 1463 baino lehenagoko aldiarekiko: lehenengoz, oraindik aurrera Probintziak berak erregearekin *negoziatuko ditu* ordaindu beharreko kantitateak eta epeak, hiribilduek eta lekuek Errege–ogasunari ohiko zergak ordaintzen jarraitzen bazuten ere; bigarrenik, arabar guztiak, salbuespenik gabe, zergaduntzat hartzen ziren, eta horrek, aurreko aldiarekin konparatuz, erabateko aldaketa sortu zuen, aurreko aldi horretan handikiek, elizgizonek eta nobleek ez baitzuten zerga pertsonalik eta lurralde–zergarik ordaindu behar.

Azkenik, aztertzen ari garen denboraldi horretan, antzinako hiru arazo konpondu edo bideratu ziren. Konponketak, nola edo hala, Ermandadearen eta Batzar Nagusien etorkizuna finkatu zuen. Lehenengo arazoa leku–ermandade bakoitzean alkate eta prokuradore karguak lortzeko handikiek eta nekazari zergapekoek zuten liskarrari dagokio. Handikiek, 1332. urteko Arriagako agirietan oinarrituz, beraientzako bakarrik eskatzen zituzten kargu horiek. Zergapekoek, berriz, pribilegio hori ukatzen zuten Ermandadearen 1417ko eta 1463ko Ordenantzak –Ordenantza horiek ez zutelako handiki izatearen baldintza eskatzen kargu horiek eskuratzeko– eta Erreinuaren Ermandade Nagusiaren Konstituzio–legea oinarritzat hartuta, zeinak finkatzen baitzuen hogeita hamar bizilagun baino gehiagoko tokietan bi alkate izenda zezaketela, bata handikia eta bestea zergapekoa. Zenbait kasutan epaileek zergapekoen alde egin zuten, Kuartangoko Haranan gertatu zen bezala 1510. urtean. Dena dela, landako noblezia txikiak justiziaren kontrola izaten jarraitu zuen herrietan eta ermandadeetan.

Bigarren arazoa Arabako ermandadeek Gasteizekin duten gatazkari dagokio, Ermandadeen kargu exekutiboen kontrola eta, bereziki, Diputatu Nagusiaren karguaren kontrola dela eta. Bien arteko lehiakidetasuna Diego Martínez de Álavaren agintaldian gogortu zen batez ere, hogeita hamar urte baino gehiagoz Ermandadea gogorkeriaz gobernatu baitzuen. Gainera handikiek beraiek bultzatu zuten lehiakidetasun hori, batez ere Komunero deituriko Aguraingo Kodeak, Pedro López de Ayalak, lehenengoak 1521ean garaituak. Garaipen horren ondorioz, Diegok Fernando semearentzat Diputatu Nagusiaren kargua betiko ziurtatu zuen. Baina 1521ean oso gazte hil zenez, eta 1533an Diputatu Nagusia ere hil zenez, bi alderdiek bakea egin zuten, eta egindako akordioaren arabera alderdi bakoitzaren hiru hauteslek aipatutako kargua hautatu behar zuten, baina hautatuak Gasteizko bizilaguna izan behar zuen.

Hirugarrena leku–ermandadeen artean urte hauetan sortu ziren ezberdintasunen ondorioz suertatutako zerga–arazoari buruzkoa da. Ezberdintasun hori auzotar–kopuruaren arabera ordaindu beharreko kopuruari dagokio. 1463 eta 1507 artean gero eta ermandade gehiago sartzen ziren eta, ondorioz, ezberdintasunak sortzen dira haien artean. Berriak Ermandadean sartzen ziren ordaintzaile eta zergadun kopurua hitzartu ondoren, eta horrek tentsio ugari sortu zuen eta Probintziako etorkizuna arriskuan jarri zuen. Banaketa horren adierazgarri garrantzitsuena 1531 eta 1533 artean Aiarako Lurraldea Ermandadetik aldendu izana litzateke. Haran horretako prokuradoreek baldintza bakarra jarri zuten ermandadean berriro sartzeko: beste bilketa bat egitea «*para que cada una pagase según los vecinos que tenía*»[6]. Bilketa Probintziak egindako auzoteria da, eta horren xedea, L.Mª. Bilbaok adierazi duen

bezala, ermandade bakoitzaren auzotar kopurua jakitea da, sor daitezkeen zamak kontularitzako irizpideen arabera finkatzeko eta banatzeko.
Bilketa horren aurkako erresistentzia eta tentsioak ugaritu ziren XVI. mendeko 30eko hamarkadan. Hona hemen erresistentzia horren adierazgarri: 1533an hasi, baina 1534ko azaroan bukatu gabe zegoen oraindik. Bakarrik 1537an, eta erregearen esku–hartzearen ostean, onartu zuten ermandadeek aipatutako bilketa; eta hori Aiarako prokuradoreen protestak gertatu ondoren, –«*porque en lo que estaba fecho avia avido fraude*»[7]–, eta inolako salbuespenik egin gabe «*por fidalguia, nin por cavalleria, nin por privillejo alguno nin por otra cosa alguna*»[8]. Erregulartasunez egindako geroko auzotar–kontaketen ondorioz, ezabatu egin ziren ermandadeen arteko aldeak.

Azkenik, 1537an ere bai, zergei eta Ermandadearen eskribau, komisari etab.eko karguen hautaketari dagokionez, probintziako lurraldean sei koadrilatako banaketa finkatu zen –Gasteiz, Agurain, Guardia, Aiara, Zuia eta Mendoza. Koadrila bakoitzak leku–ermandade kopuru heterogeneoa –batzutan inolako kidetasunik gabekoa– zuen, eta oro har ordaintzaileen kopurua antzekoa zen koadrila guztietan. Banaketa horrek baditu aitzindariak XV. mendetik aurrera eta, batez ere, 1505ean eta 1515ean. Baina 1537tik aurrera eredua indartu egin zen eta aldaezina suertatu zen 1840ra arte. Urte horretan Gasteizko Ermandadea –ordaintzaile kopuru handiago zuen eta, beraz, Batzarretan protagonismo handiagoa zuen–, koadrila bakarra osatu zuen eta, orduan, Añanako Koadrila sortu zen. Ordura arte Gasteizkoaren partaide ziren gainerako leku–ermandade txikiak sartu ziren azken koadrila horretan.

## ARABAKO BATZAR NAGUSIEN HASIERAKO BILAKAERA INTERPRETATZEA

Arabako Batzar Nagusien haurtzaroa deitu dugun denboraldi kronologiko honetan, beraz, erakundearen funtzionamendu–eredua sortzen da, zeinaren ezaugarri nagusiak hurrengo mendeetan finkatu egingo diren. Egituraketa hori, noski, 1463ko Ordenantzek mugatu zuten, baina araubidea interpretatu eta egoera jakinen aurrean erabaki zehatzak hartu zituztenek ere hartu zuten parte aipatutako egituraketan. Azken finean, sortzen ari zen egitura politiko–administratiboaren atzean zenbait pertsona daude, eta haiek, taldearen interesei jarraituz, egitura hori moldatu egin zuten euren helburuak lortzeko eta geroan irauteko.

Arabako Ermandadearen sorreraz eta hasierako garapenaz egindako lanak, oro har, funtzionatze–eredu horri buruzko azalpenaz arduratu dira, baina ez dute aztertu arazoaren alderdi sozialak. Adibidez, bilakaera zergatik gertatu zen horrela eta ez beste era batera jakiteko, garrantzi handikoa den baina orain arte proposatu ez den arazoa aztertu beharko genuke: zein gobernu–erakundean biltzen zen boterea Probintzian, nortzuk edo zein taldek zuten agintea eta noren interesen aldekoak ziren. Puntu honi dagokionez azpimarratu behar da, lehenengoz, 1463ko Ordenantzek esleitutako eta ondoren eskuratutako eskumenen gordelariak ziren Batzar Nagusiek pixkanaka galdu zutela botere exekutiboa, eta botere hori hasieran Batzar Bereziaren kideen esku gelditu bazen ere, ondoren Aldundiaren esku gelditu zela. Seguru aski prozesua bizkortu egin zen 1476an –Gaztelako Ermandadean sartu zenean–, eta finkatu egin zen Diego Martínez de Álava Probintziako gobernuburu izan zen aldi luze horretan.

Haren boterea pixkanaka hondatu zuten arrazoien artean, honako hauek ere azpimarratu beharko genituzke. Lehenengoz, haien osaera bera, ezen Ordenantzen arabera, leku–ermandade bakoitzaren ordezkaritza honako hauei baitzegokien: «*los hombres buenos e de buenas famas e ydóneos e perteneszientes, hombres ricos e abonados cada uno de ellos en quantya de quarenta mill mrs, e que sean hombres de buen deseo e abtoridad porque fagan e ordenen bien las cosas de la dicha junta*»[9]. Eskribau, alkate eta komisarien kasuan, hautagaiak izateko gutxienezko kantitatea laurogeita hamar mila maraitakoa zen. Ermandadearen prokuradore izateko edo beste karguren bat eskuratzeko eskatzen ziren betekizun ekonomikoen ondorioz, erabakiak hartzeko aukera ondarezko ondasun horien balorea zeukatenei murriztuta zegoen eta,

haatik, biztanle gehienak Batzarretatik bota zituzten. Azken murrizketa horren esanahi sakona ulertzeko, Aramaioko Ermandadearen adibidea dugu, haran horretako auzotarren ondasun higiezin eta higigarrien erregistroa, 1510ean egindakoa, gordetzen baita. Erregistro horren azterketa erabatekoa da: 196 auzotarren artean hiruk baino ez zuten gainditzen kopuru hori! Agian Arabako lautadan, aberatsagoak zirenez, auzotar kopuru handiagoak betetzen zuen baldintza hori; hala eta guztiz ere, ematen du, egoerarik onenean ere, gutxi batzuek baino ez zutela kargu horiek eskuratzeko aukerarik. Horrez gain, kontuan izanik ermandadeetako handikiek kargu gehienen monopolioa zutela, erraz uler ditzakegu zergapekoekin gertatutako zenbait liskar, adibidez, lehen aipatu dugun bezala, Kuartangon gertatutakoa.

Arabako hasierako lurralde– eta politika–konfigurazioan Gasteizko Oligarkiaren interes politiko eta ekonomikoek ere garrantzi handia izan zuten. Gasteizko Oligarkia lurraldeko talde boteretsuena zen. Hiribilduetako jendeak eta, bereziki, Gasteizko oligarkiak zuen agintea Arabako Ermandadean. Gasteiz errealengo–hiribildu bakarra izan zen, eta XV. mende hasieratik herri–batzarra kontrolatu zutenek laster Probintziako gobernua hartu zuten. Gainera Gobernua hartu zuten Arabako nobleziaren Ahaide Nagusien aurka egin gabe –Mendoza, Velasco, Hurtado de Mendoza, Sarmiento etab.–, hauek oso lanpetuta baitzeuden Gortean edo Gaztelako jaun–estatu handiak administratzen. Honako bi azalpen hauek egiaztatzen dute aipatutakoa: noble handi horiek, haien ordezkoak edo morroiak Batzar Nagusietatik at gertu zirela; eta 1476. eta 1533. urte bitartean Gasteizek, edo hobeto esateko, horko oligarkiaren taldekideek, erregeen oniritziz, Probintziako magistratura handiena, hots, Diputatu Nagusiaren kargua, monopolizatzen zutela. Gainera Ermandadearen bi komisarietako bat gasteiztarra izan behar zen, Gasteizen egiten baitziren Batzarren urteko bi bilkuretatik bat eta Batzar Bereziaren urteko bilkura.

Azken finean, Gasteiz hiriak eta hango oligarkiak probintziako gainontzeko tokietan duten eragin soziala eta botere ekonomikoa, une honetan osatu egiten dira aurrekaririk ez duen protagonismo politikoarekin. Ene ustez, protagonismo politiko horri esker, erabateko eragina izan zuten erabakiak hartzen eta, taldearen interesetatik abiatuta, ezarri egin zituzten adibidez Koroarekin eta Probintziarekin geroago izan zituzten harremanen zutabe politikoak. Eragin eta zutabe horiek, seguru aski, oihartzun handia izan zuten leku–ermandadeen buru zirenen artean. Probintziako gainontzeko lekuetako alkate, prokuradore edo komisariei eskatutako ekonomia–betekizunak direla–eta, Gasteizko oligarkia eta gainerako leku–talde boteretsuen artean nolabaiteko interes–elkartasuna zegoela pentsa dezakegu.

Azkenik, jakiteko zergatik hasieratik Batzarrek eta Ermandadeak berak modu jakin batean jokatu zuten, argigarria da Gasteizko eta Arabako gutxiengo agintari–taldearen eta Koroaren arteko lotura estua. Aipatutakoari buruz adibide oso ezagunak ditugu historiografian. Honako hauek baino ez ditugu aipatu behar: Ochoa Pérez de Salinas Errege Katolikoen Gortearen bankaria zen, harreman finantzarioak zituen erreinuko goi dignatario batzuekin eta atzerriko zenbait merkatarirekin, hiriko eskribau publikoa zen eta, ondoren, Isabel Katolikoaren deskarguen ordaintzaile eta diruzaina izan zen; Pedro Martínez de Álava merkataria eta Errege–etxearen errege–zaina izan zen; Fortún Ibáñez de Aguirre Erresuma–kontseiluaren eta Inkisizio Santuaren kide izan zen, eta bereziki aipatu behar dugu Diego Martínez de Álava, Isabel Erreginak Diputatu Nagusi izendatu zuen Gasteizko Udaletxeak eskatuta, eta kargu horretan izan zen 1499tik 1533ra arte.

Komenigarria gogoraraztea Araban, XV. mende bukaeran, ez zegoela korrejidorerik, Gaztela osoan gertatzen ez zen bezala –Bizkaia eta Gipuzkoa barne–. Lurralde hauetan Diputatu Nagusia zen Gaztelako Koroaren ordezkaria, eta erregeak berak –Errege Katolikoek hasieran eta, ondoren, Carlos V.ak– izendatzen zuen Diputatu Nagusia. Erregeek uste zuten, arrazoi osoarekin gainera, Diego Martínez de Álavak edo, beste era batera esanda, Gasteizko Oligarkiak –zeinaren ordezkari nagusia Diputatua bera baitzen–, ondo baino hobeto egiten

zuela beren interesen alde. Lotura horren ondorioak oso onuragarriak izan ziren Gasteizko eta Arabako «*mas ricos e abonados*»[10], baita haien ondorengoentzat –Ejertzitoan eta Espainiako Inperioaren burokrazian adibide onak aurkitzen dira–, eta horrek, nola ez, eragina izan zuen 1463. urtean sortutako Arabako erakundeetan, eta erakunde horiek baldintzatuta egon ziren bi aliatuen interes osagarriekin. Hori guztiaren adierazgarri egokiena Koroak berak Arabako lurrei buruz zuen pertzepzioa izan daiteke, Ermandadeari bidalitako errege–eskutitzen goialdean jarritako protokoloko formulan jasotzen dena alegia: «*A la Provinçia de la çibdad de Vitoria…*"[11]

Bukatzeko, Gasteizko oligarkiak eta Arabako herri eta hiribildu txikietako handikiek irabazi handienak jaso zituzten gizarte–gatazkak erabakitzearen eta probintziako erakunde berri horren sorreraren ondorioz; lehenengoa bereziki, merkataritzarekin aberasturik, Udalbatza eta Ermandadearen kargu nagusiak kontrolatzen baitzituen. Aski da erregeari denboraldi honetan bidali zizkioten Memorialak eta Batzar Nagusien Aktak begiratzea hauek lortu zuten garaipen politiko osoa egiaztatzeko: lurraldearen egituraketa politiko berriaren ordezkaritza egiterakoan, Arabako jaun handiak alde batera uzteaz gain, nekazariak ere baztertzea lortu zuten.

## OHARRAK

[1] "Arabak izan zuen gobernu–metodoaren ziurgabetasuna, Gaztelako Koroarekin nahita bat egin ondoren".

[2] "400 urtez Araba Probintziako funtsezko lege–bilduma".

[3] "Ermandadearen kontuak eta gastuak ikusteko".

[4] "esandako Ermandadearen gauza guztietaz".

[5] "esandako Ermandadearen kasuei eta justizia egikaritzeari zegozkienak, eta ahal eta behar dutenei buruz esandako Ermandadearen koadernoen arabera".

[6] "Bakoitzak zeuzkan auzotarren arabera ordaintzeko".

[7] "zeren eta egindakoan iruzur egin dute"

[8] "handikitasun, nahiz zalduntasun, nahiz pribilegio edo beste edozein kausagatik".

[9] "gizon onak, entzule handikoak, hautagaiak eta egokiak, aberatsak eta bakoitzak laurogei mila maraitako kantitateaz abonaturik, gogo onekoak eta aginpidekoak, esandako batzarren gauzak ondo egiteko eratzeko".

[10] "Aberats eta ondasun handikoenentzat".

[11] "… Gasteiz hiriko probintziari…"



DON CARLOS

Por la diuina clemencia empera
dor de los Romanos augusto
Rey de alemania. Doña Juana ∴
su madre y el mismo don carlos
por la gracia de dios Reyes de cas
tilla de leon de aragon de las dos
secilias de hierusalem de nauarra
de granada de toledo de valencia de galizia de mallorcas
de seuilla de cerdeña de cordoua de corcega de murcia ∴
de jaen de los algarbes de algezira de gibraltar de las ys
las de canaria de las yndias yslas E tierra firme de el
mar oceano condes de barcelona señores de bizcaya
E de molina duques de athenas e de neopatria condes
de Ruysellon e de cerdania marqueses de oristan y de
gociano archiduques de austria duques de borgoña
E de brauante condes de flandes e de tirol etc. A l
y lustrissimo principe don phelippe nuestro muy caro
E muy amado nieto e hijo y a los yfantes duques per
lados condes marqueses Ricos omes maestres de
las hordenes priores comendadores e subcomenda
dores E a los alcaydes de los castillos y casas fuertes y
llanas y a los de el nuestro consejo presidentes E oy
dores de las nuestras abdiencias alcaldes y alguaziles
de la nuestra casa e corte e chancillerias. Y a todos los co
rregidores asistentes gouernadores alcaldes merinos
E otros juezes e justicias quales quier. ansy de la proui
cia de la abdad de bitoria y hermandades de alaba y sus
adherentes. como de todas las otras abdades villas y
lugares de los nuestros Reynos y señorios E a cada vno y
qualquier de vos en vros lugares y jurisdiciones. a quien
en esta nuestra carta fuere mostrada o su treslado signa
do de escriuano publico Salud y gracia sepades que mar
tin martinez de bermeo diputado general de la dicha ∴
prouincia de la abdad de bitoria y hermandades de
alaba y sus adherentes y Ruy garcia de guaço e fernando
de vgarte procuradores de la dicha prouincia nos hizieron
Relacion por su peticion diziendo que los Reyes nuestros

